

Juan Atutxaren *Gramática teórico-práctica del euskera*. Antologia

Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria

1. Juan Atutxa Iza¹

1.1. Bizitza

Zeanurin jaio zan aita Juan Atutxa, Undurraga auzoko Antsone baserrian, 1899. urtean. Hamaika anaia-arrebatan bigarren, honeetako lau abade izan zirean (bi Jesusen Lagundikoak).²

Undurragako eskolan egin ebazan lehen ikasketak, Agustin Intxaurbe zala maixu. Eleiz ikasketak Durango eta Comillasen hasi ebazan, bost urtetan zehar latíña ikasiz. 1918.eko apirilaren 10ean, 18 urteko zala, Jesusen Lagundian sartzen da, Loiolako Nobiziatuan. Han, Erretorika ikasketak egin ebazan. 1921-24 urte bitartean, Oñan izan zan Filosofia ikasten. Hiru urte Barranquillan (Kolonbia) eta beste bat Durangon egin eta Oñara abiatzen da, barriro, Filosofia ikasten. 1931.eko garagarillaren 30-31n, abade ordenatu zan. 1932.eko zezeilan, Lagundia deuseztatu egiten da eta Marneffera (Belgika) joan beharra dauka Teologiako 4. maila jarraituz; hau amaituta, bere Hirugarren Probazinoa³ egin eban Morialmen (Belgika).

1933. urtean, Durangora bidaltzen dabe. Han gerra zibilak harrapatzen dau eta gerrako egunik gogorrenak Undurragan emon ebazan, etxean. Durangora itzulita, Lagundiaren ikastetxean izan zan 1939ra arte; orduan, Xabierren bidaltzen dabe eta, bertan 11 urte emon ostean, barriro bueltatzen da Durangora, 29 urte egotera. 1979.ean, Loiolako Erizaindegira bidaltzen dabe *curat valetudinem* legez.

Juan Atutxak, ba, hiru etxetan garandu dau abadetza: Durangon 35 urtean, 11 Xabierren eta 2 Loiolan.

1.2. Izaera

Loiolako Probintziako Artxibo Historikoko Bilduman honakoa adierazoten da bere izaeraz: *“Todos hemos conocido al buen P. Atucha y todos lo hemos querido. Hombre sencillo, de pocas palabras, si se quiere hasta algo soso y, durante algún tiempo, al menos, con algún decaimiento síquico, ha sido un buen religioso y con una cualida envidiable que siempre le ha acompañado: su amor al trabajo. Nunca se le oyó censurar a nadie, ni se sabe que se hubiera enfadado con ninguno. Si sus compañeros de comunidad, los jóvenes en general, se habían de permitir gastarles familiarmente algunas bromas, él se reiría bonachón y diría indefectiblemente ‘aguacero verbal’. A un compañero suyo que se había retirado a Loyola a descansar, le dio este consejo: ‘Mire, si lo quiere pasar bien, tenga en cuenta este consejo mío, trabaje’. Y ha sido el trabajo constante, callado, en su habitación, lo que ha hecho feliz al P. Atucha y le ha granjeado la satisfacción de ver impresas varias de sus obras, en euskera.”*

¹ Mila esker lenengo atal hau burutzen lagundu deusteen Durangoko Jesusen Lagunen etxeko Juanjo Moreno eta Loiolako Artxibo Historikoko Isidro M^a Sans-i eta Iñaki eta Maider Atutxari.

² Lagundian ospe handia izan eban Antonino Atutxaren loba izan zirean. Antonino Atutxa Aldekoa be Zeanurin jaio zan 1881.eko urrilenengoaren 2an. Loiolan sartu zan, Oñan ikasi, Xabierren Humanitateak irakatsi, Burgosen abade ordenatu eta Austria, Alemania eta Belgikako hainbat Jesusen Lagunen etxetan ibili zan. Nikaraguara heldu zan 1945.eko jorrailaren 4an. Managuan izan zan eta han hil zan 1951.eko zemendiaren 21etan, eguaztenez. Managuako Novedades egunkarian holan iñoen 22an: “NOVEDADES lamenta el fallecimiento del abnegado y virtuoso hijo de Loyola y hace llegar su condolencia a todos los miembros de la Compañía de Jesús residentes en Nicaragua, así como a las altas autoridades eclesiásticas por la pérdida que significa para la Iglesia Católica en Nicaragua el desaparecimiento del que siempre será el bien recordado Padre Atucha”.

Lagundiko bigarren anaia Esteban izan zen. Juan baino lau urte gazteago izan zan baina bere pausak jarraitu ebazan: Loiolako Nobiziatuan lehen urratsak; han, Humanitateak eta Erretorika ikasi eta Oñara Filosofia ikasten. 1926-30 urte bitartean, Xabierren izango da; handik, Marneffera 1932.ean, abade ordenatu eta Morialmen Hirugarren Probazinoa. 1938.ean, Ertamerikara joango da eta, urtez batez Nikaraguan izan ondoren, Guatemalara heldu eta han izango dogu bere heriotza aurkitzen dauen arte (1976.ean).

³ Hau da Lagundiaren hasierako formazinoko azken etapari emoten jakon izena.

Izan dogu Durangoko Komunitateko buru dan Juanjo Morenogaz⁴ berba egiteko aukerea eta bera be bide honetatik dator. Esan deuskunagaitik:

a) Juan Atutxa oso lotsatia, bakartia eta, batez be, oso isila da. Ez da gai jentearen aurrean ipini eta klase bat emoteko; ez eta, esate baterako, meza emoteko (Aita Iñaki Goikoetxeak jendearen aurrean mezarik emon ezean Loiolara bidalia izango dala adierazo eutsonean baiño ez ei zan ausartu hori egiten).

b) Latineko klaseak emoten be ez ei zan ausartzen, klaseetan jente asko biltzen zalako. Taldeak oso txikiak ziranean ostera, ausartzen zan indartzeko klaseak emoten.

b) Beti ei egoan bere burutazinoetan eta gauzak asmatzen. Oso asmatzaile handia ei zan eta hori ikusten da aztergai dogun Gramatikan be, asmatu eta sortzen dauzen hitzetan.

d) Durangon egoanean, aitatu doguzan klaseak emoten ez egoanean, pasilloetan hara-horra ibiltzen zan, bere burutazinoetan; handik bere gelara eta barriro pasilloetara. Holan egun osoan. Bazkaltzen eta afaltzen baino ez zan joaten jangelara.

e) Eukan dibertimendu bakarria karta-jokoa ei zan eta beste lagun bigaz txintxonean egiten eban telebista aurrean egozala.

f) Berezko ezaugarririk nabariena pertsona ona izana da; ona, isila eta lasaia, gauzak etozen lez hartuten ebazana. Horren erakusgarri bere eriotza-orduko kronika da: *“A la una de este 5 de diciembre de 1980, inmediatamente después de las exequias, al mediodía, en la Basílica de Loyola, hemos dado cristiana sepultura al buen P. Juan Atucha. Murió el día de San Francisco Javier, a las 11.30 de la noche. La víspera de su muerte celebró la Santa Misa a las 7.30, como de costumbre, en el Camarín de la santa Casa. Poco después comenzó a sentir náuseas, a repeler todo alimento y tuvo necesidad de un cuidado especial, a base de suero, durante todo el día miércoles 3 de diciembre. No perdió ni un momento sus facultades, y se comunicó cuanto hizo falta con cuantos le fueon a visitar. A eso de las 10 de la noche el P. Fdz. De Pinedo dijo al Padre: ‘Mire, P. Atucha, para mi tranquilidad y también para la suya, yo le administraría el santo óleo’. A lo que el Padre accedió gustoso. Volvió a sugerirle el P. Pinedo si quería a algún Padre para reconciliarle. Y el Padre Atucha le contestó tranquilo: ‘No hace falta’. Estaba preparado para la venida del Señor. Y confortado y purificado con el Sacramento de los enfermos, entregó su alma al Señor hora y media más tarde”*.⁵

1.3. Idazlanak

Gerra aurrean Aita Chalbaudek Langileen batz bat eukan eta haiantzat lau orrialdeko papel bat idazten eban, SI O NO izenburuagaz. Hau euskaraz ipinten eban Aita Atutxak BAI EDO EZ izenburuagaz.

Jesusen Bihotzaren Deian zeozer idatzi eban.

Inazio Deunaren GOGO YARDUNEK (Mensajero, 1969) euskeratu ebazan.

Aztergai dogun GRAMATICA TEORICO-PRACTICA DEL EUSKERA (Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1977).

CATECISMO FAMILIAR, euskaraz eta gazteleraz, prestatzen egoan.

1.4. Giro giza-historikoa

Juan Atutxa 1899.ean jaioa da eta literatur joera desberdinak bizi izan ahal ebazan.

Gerra aurreko euskal literatura nazionalismoak markatua da Ibon Sarasolaren ustez (1982: 141) eta nazionalismoaren helburua euskal hizkuntza duin bihurtu eta literatura sustatzea da, zeregin hau abadeengan egokituko da. Nazionalismoak garatutako kultura gaztelaniaz azaltzen jaku baina euskal

⁴ Juanjo Moreno 1966.ean dator Durangora eta, 13 urtetan zehar, 1979ra arte, Juan Atutxagaz batera biziteko aukerea izan eban.

⁵ Loiolako Probintziko Artxibo Historikoko Bildumatik jasoa.

hizkuntzak, barriz, oinarrizko zeregina bete eikean, batez be bere jatorrizko garbitasuna itzuliz. Bide horretatik, euskal hizkuntzatik atzerriko berba guztiak alboratzen saiatzen dira, norberak asmatutako berbaz ordezkatur. Atzeritarrei ulertezina egingo jakeen ekoizpena lortuko da, baina, zori txarrez, bertakoei be eginko jake, ekoizpen idatzi eta ahozko hizkuntzaren arteko banaketa larria sortuz.

Gerra ostean, ostera, egoera guztiz aldatzen da;⁶ egun larriak datoz euskal hizkuntza eta literaturarentzat eta ahoz eta idatziz erabiltzea. Urteak aurrera egin ahala, hizkuntza garbizaletasun hau alde batera itxi eta Europako ideologia eta literatur korrante barriak besarkatzen joango dira. 1964.az geroztik, euskal literaturak inoiz izan dauen iraultzarik nabarmenena jasango dau.

Ibilbide honetan, nire ustez, Juan Atutxa gerra aurreko joeran barruratua dogu. Ez dot zalantzarik nazionalista sutsua dogula (gogora dagigun Aita Chalbauden Langileen Batza) eta beregain hartzen dauala euskal hizkuntza eta literatura sustatu, batetik, eta hitz barriak asmatzea, bestetik, erdal kutsua dauan berbarik erabil barik (guzti honen izpilu, eskuartean dogun Gramatika).

2. Juan Atutxaren *Gramática*

Eskuartean dogun gramatika honetan azpimagarri iruditzen jakuzan hainbat ezaugarri aitatu gurako geunkez jarriako lerroetan.

Hasteko, gramatika teorikoa eta praktikoa dala diñosku J. Atutxak izenburuan bertan eta holan da orrialde asko eta askotan, irakurgai lez, testu mordoa sartu dau eta.⁷

Beste ezaugarrietako bat, aldi berean euskara eta gazteleraz idatzi izana da; izan be, eskoi aldean, orrialde pareetan, erdal bertsioa (gaztelera) agertzen dan bitartean, ezkerraldean, pareetan, euskarazkoa ezarri dau.⁸

Aita Villasantek aitutzen dauan J. M. Lerchundiren kontu honetan datza J. Atutxaren gramatikaren beste ezaugarri lez hartu geinkean hurrengo hau be: gramatika osoan zehar darabilen terminologia, berbak (eta, batez be, aditzaren aldiak sailkatzeko orduan erabiltzen dauzanak).

J. Atutxaren gramatika hau, bestalde, hiru zati nagusitan banatu da: a) Lehen atala. Atal honetan hitza bera dau aztergai gure idazleak; idea, mota eta hitzaren idea eta motak bereiztu eta sailkatzen dauz: 45. orrialdera bitartean, izen, izenondo eta izenordeez mintzo da. 46.etik 161.era, aditza aztertzen dau; 163.etik 173ra, aditzondo, juntagailu, hitz eta aditzaren atzizkiez eta interjekzioez ari jaku. b) Bigarren atala. Atal honetan, hitzen jozkerari, elkartzeari ekin deutso, 175-181 orriade bitartean. d) Azken atalean hitzen ahozkerara aurkituko dogu (183. orrialdean). Hemendik amaierara bitartean (303. orrialdea), barriro be, aditza izango dau aztergai. Oraingo honetan, bizkaiera hartzen dau aztergai eta lehen atalean erabili dauan egitura eta adibide berberak darabilz. Argi ikusten da, ba, gramatikaren orrialderik gehienak aditzari eskainiak doguzala.

⁶ Joxe Azurmendik “*gerra osteko literatura ez da literatura egitea xede duena: herriari mintzabide emateko sortua dena baino*” diñosku *Euskal idazleak gaur* liburuan (Torrealdai 1977: 41). Torrealdai berak, prologoan, “*El escritor vasco no es, pues, un literato. Hoy por hoy se reduce a realizar los trabajos de pluma más urgentes y elementales, con los que cree realizar un servicio a su pueblo. La literatura vasca es literatura de catacumbas. Literatura realizada a pedazos de noche, entre muertos y muertos, por un subproletariado que no se cansa de martillar con la pluma. Creo que la conciencia del escritor vasco es muy particular y característica. Se siente más directa e inmediatamente comprometido con su pueblo, que con la literatura, que su métier, en cuanto arte. Lo que le da ese carácter ‘político’, de que ha sido achacado con frecuencia. Es un militante de la resistencia espiritual: Más de uno ha llegado a escritor, no por vocación literaria, sino atormentado por la miseria cultural que vive su pueblo...*” idazten dau (aip. lan.: 59).

⁷ Testuok lan honetatik hartuak doguz: *Dialogues basques: guipuscoans, biscaiens, labourdins, soluletins, par Don A.P. Iturriaga, le P.J.A. de Uriarte, M. L. Cap. J. Duvoisin, M. L’abbé Inchauspe. Acompagnés de deux traduccions, Espagnole eta française.* Londres 1857. (J. Atutxa, 1976 : 6-7)

⁸ Izan dau aitzindaririk euskal gramatikagintzan kontu honetan J. Atutxak. Aita Villasantek diñoenez (1979 : 404), “*Como autor de una Gramática Vasca del dialecto guipuzcoano, que tiene la particularidad de estar redactada simultáneamente en vascuence y castellano, es digno de mención el escolapio P. Juan Manuel Lerchundi. Publicó su obra en San Sebastián el año 1913. Su vascuence es, por lo general, aceptable y auténtico, aunque el problema de la terminología le hace recurrir a vocablos embarazosos e inteligibles*”.

Resurrección M^a Azkuek be *Euskal Izkindea-Gramática Eúskara* argitaratu eban 1891.ean eta gramatika hau bi zutabetan konposatua da; batean, ezkerraldean, euskarazko azalpenak eta bestean, eskoikoan, gaztelerazkoak agertzen dira.

Eta, aditza dala ta, aitortu beharreko lehen berezitasuna aditz aldiak sailkatzeko orduan aurkituko dogu. Aita Onaindiak sarreran holan diñosku: “*Gertateen aldia be, aditzean, bitxikiro banatuta daukagu: oraingoa, oitezko oraingoa, gerokoa, oraingozlena, lengozlena, lengoa gertaten, oitezko lengoa, lengozgerokoa, lengo urriña, lengorezlena, lengo urriñezlena, oitezko lengozlena. Gertateen aldi neurtze onen itzak barriak ditugu, baiña naikoa ondo adierazten dabe, beste izkuntzetan be, zeatz meatz beiñik bein, esan-naia aitzen emotea zail egiten yaken zer eskutu au*”. Edo gazteleraz itzultzen dauen lez: “*Es nueva la denominación que introduce, pero encaja bastante exactamente para expresar la idea fiel de cada tiempo*” (J. Atutxa, 1976: 4-5).

Gainontzeko aditz kontuetan, beste gramatika batzuen antzera eratua dago: aditz perifrastikoa batetik, sintetikoa bestetik; baktxaren barruan, iragankorrek eta iragangaitzak eta, batean eta bestean, modu eta aditz denpora desbardiñak, hori bai, asmatutako terminologia bitartez dala.

3. Testu antología

3.1. Euskel arauaren aldeek (10)

“Euskel arauaren aldeek: lenengoa, itz-ideen, itz-moeten bereiztea; sailkatzea. Bigarrena, itzen ta esanen eratea, elkaryostea. Irugarrena, itzen eta esanen oguzkerea.”

3.2. Lenego aldea (10)

“Lenego aldea, itz-ideen, itz-moeten bereiztea, sailkatzea.

Euskel itzen ideek, moetek, dira: izena, izenondokoa, izenordea, gerta-itza edo gertate-itza, gertaitzondokoa, lot-itzek edo lotzeko itzek, izenaren azkenizkiek, gertaitzaren azkenizkiek, eta gogo-itzek.

Izena, izaki bat deitzeko itza da. Gizona, etxea, ogia, ura, ta abar.

Izenondokoa, izakia nolakoa dan esateko, edo nolabait berezteko itza da. Ona, txarra, andia, txikia; gizon au, ori, bestea; gizon bat, bi, iru, lau, zein gizon?

Izenordea, izen baten ordeaz ipinten dan itza da. Ni, i, a, gu, zu, zuek, ayek; nerau, erori, aura, gerauek, zerauek, zeuek, beurek; bera, berori; berbera, berberori.

Gertaitza, edo gertate-itza, izakien gertateek adierazteko itza da. Yayo, asi, bici, il, dator, dakar, dabil, darabil, t. a. t. a.

Gerta-itz-ondokoa, izakien gertateek berezteko edo mugatzeko, gertaitzaren ondoan ipinten da itza da. Bizi ondo, txarto; il atzo, gaur, biar.

Lot-itza edo lotzeko itza, izenak eta esanak lotzeko itza da. Ta, edo, naiz, beraz, t. a.

Izenaren azkenizkiek, esanean izenak daukan eginbidea adierazteko azkenizkiek dira. Gizon, gizonik, gizonen, gizoni... Gizona, gizona-ren, -ri, -rentzat, -rentzako, t. a.

Gertaitzaren azkenizkiak, esanak elkarteko azkenizkiek dira. -la, -lako, -lakoan, -larik, -n, -na, -n-ean, -n-eko, -n-eño, -nerako, t. a.

Gogo-itzek edo gogokera itzek, gogokerea agertzeko itzek edo abotsak dira. Ai, oi, a!, ala, aupa, atz, ospa, utikan, otian, eup, ba! t. a.

Dugu, degu, dogu; zuagu, diagu, yuagu ta beste onetariko ainbat ipini ditugu eduetan. Lenengo, al dan arauz; gero Gipuzkera errikoa, ta Bizkaikoa.

Aintzakoa da, garrantziduna da, gure burueta ta izketa ta idazketa guztia izakien gertateetzaz dala oartzea. Ta au oartzeko berarizko itza da gertaitza, gertateek esateko itza esan nai dualako. Augaitik darabit itz au. Aita Mugikaren iztegian dago, ta ARGIA asterokoan iñoiz irakurri dut.

Darraizen eduetan gertaitzaren atxite bat baño gehiago ipini dut. Lenengo araurik onenekoak zukan eta ikan; gero Gipuzkoako errikoak, eta bizkaierakoak. Esaterako: Zein etxe erre da, duk, dek, dok? eta abar. Guzti auek esannai verdina dute. Erre da, zukan; erre duk, dek, dok, ikan.”

3.3. Izenaren atxitea (12)

“Izena azkenizkiekin atxiten da, a-gaberik eta a-rekin.

A-gaberik izen berezigabeek. Izena zintzur-itzkian bukatzen danean.

Etxe Zein etxe erre da duk dek dok? Goiko etxea. Bengo etxea.

Etxe-k Zein etxek bear du, žuk dik yok tellatu berria?

-rik Ikusten duzu duk dek dok etxerik? Ez dut ez žuat yuat ikusten.”

3.4. Nolakoa esateko izenondokoaren mallak (20)

“Nolakoa esateko izenondokoaren mallak.

Nolakoa esateko izenondokoek dira: Lenengo. Nolakoa esatekoa bakarrik. Andia, txikia, zuria, gorria, t.a.

2gn. Ereztekoa. Ta au. Berdiña esatekoa. Ain andia. Peru aña andia. Peru bezain andia. Perulako andia. Peru besteko andia. Peru bertzeko andia. Peru bezalako andia. Gehiago esatekoa. Andiagoa, txikiagoa, zuriagoa, gorriagoa, t.a.

3gn. Goimallakoa. Andi andia; asko, oso, guztiz, agitz andia.

4gn. Goren mallakoa. Andiena, txikiena, zuriena, gorriena, t.a.”

3.5. Iragateko gertaitzek (72)

“Iragateko gertaitzek. Iragateko gertaitzen abotsek bi 210.

Iragateko gertaitzek dira:

Egite-abotsa. Erriak Peru autatu du endoretzat.

Yasate-abotsa. Peru autatua izan da endore izateko.

Egite-yasate habotas. Peru urarekin garbitzen da. Peru mendirako gertu da.

Yasate abotsarekin egite habotas batera ipiñi oi da askotan. Peru erriak autatua izan da. Autatua izan danez, yasate habotas da. Erriak autatu duanez, egite habotas.

Erriak asko esaten du: Peru urarekin garbitzen da, izpilluan ikusten da, kalerako atontzen da, mendirako gertzen da, ta abar. Eta ez da uste izan bear beti nik nire, ik ire, ark bere, guk gure, zuk zure, zuek zuen, ayek beren burua esan bear dala. Bakarrik gertaitz batzuekin orretarikoek esaten dira. Peruk bere burua errudun aitortzen du, bere burua errugetzat ematen du, ta abar. Ta orduan ere esan leike: Peru errudun aitortzen da, errugetzat ematen da.

Ala ere nik neuri, ik euri, arek berari, guk geuri, zuk zeuri, zuek zeuei, ayek eurei ez da esaten. Orren orde z nik neure buruari, ik eure buruari, arek bere buruari, guk geure buruari, zuk zeure buruari, zuek zeuen buruari, ayek euren buruari esaten da.

Iragateko gertaitzetan atxiteen gaikien tokiak aukeratu dira: Izenordeek nor zer esateko-gertaitza-z asko esateko-izenordeek nori zeri esateko-izenordeek, nork zer esateko-la, lako ta abar azkenizkiek esan garia ta menpekkoa lotzeko.

D-akar-z-ku-zu-la, lako, ta abar.

G-enkar-z-zu-la, lako, ta abar.

2gn. Lengoa

Izenordeek, nork esateko-gertaitza-z nortzuk esateko-izenordeek nori esateko-n, len esateko-la, lako, ta abar azkenizkiek, esan garaia ta menpekkoa lotzeko.

G-enekar-zu-(n)-la, lako, ta abar.

(n) au lagundun izkien aurrean ez da ogutzen.”

3.6. Bigarren alde (174)

“BIGARREN ALDEA. ITZEN YOSTEA, ELKARTEA

Gizonaren burualte guztia, izakien gertateek, eta gertate auen berezkiek bururanean dago.

Ta gizonaren izketa guztia, izakien gertateek, eta gertate auen berezkiek esatean dago.

Izakien gertateek izatea, egitea, ta yasatea dira.

Izakien gertateek itanduz galdetuz, baituz, aginduz, eskatuz, guraz, nai izanez, utziz, egitza emanez esan daitezke.

Esatearen aldeek esanaren oña, ta onza esana dira. Onza esana gertaitza da, berarekin elkartutako itzekin. Peru (oña) gizon ona da (oñaz esana).

Esanaren oña egite-oña ta yasate-oña izan daiteke. Peru-k (egite-oña) txoria il du (egitea). Pero (yasate-oña) il da (yasatea). Egite-oña k-rekin esaten da.”

3.7. Z irugarren norkietan (278)

“Z IRUGARREN NORKIETAN, LENGO ALDIETAN, BIZKAIEREAN

Bizkaierean irugarren norkietan, atxiteen asieran, baitzeko lengo aldian, gertaitz batzuekin z erabilten dugu. Z-ira-n, z-itu-an, izan z-u-an, izan z-edi-n, z-edi-zan, z-eite-la, z-eite-zela, izan z-eite-n, izan z-eite-zen, z-eite-ke-an, z-etzan, z-erri-on, z-iardu-an, z-irudi-an, z-eritxa-n, z-erio-n, z-eransa-n, z-ezau-an, z-iraki-an, z-irau-an, ekarri z-u-an, ekarri z-itu-an, z-itu-zan, z-irau-tzen, z-irau-tzala, z-rautzela,

z-esa-n. Onetakorik irakurri leizke Astarloa Prantzizkotarraren Urteko Domekak idaztian, Kerexeta-ren Alkartasun Barrian, ta beste idazleetan.

Z au ots onerako ta betegi bat bezela ipinten da. Z au beste gerta-itzetara zabaltzea ona lizake euskerearen batasunerako. Ekarran, erabillan ta beste onetarikoek gipuzkoan bigarren norkia adiratzeko darabilzte. Guk irugarren norkirako erabilizkero, batasuna kentzen da. Ik ekarran, arek zekarran erabiliaz batasunerako zerbaiz aurreratuko genduke. Oar au batez ere idazleentzako da. Eskolatugabeko erriari bere erara esaten utzi bear zaio.”

3.8. Irugarren alde (182)

“IRUGARREN ALDEA. ITZEN OGUZTEA

Itzek eta esanek otsgoigaberik ezin daitezke ogutzi. Euskerean otsgoia aukaldi batetik beste batera aldatzen da, itzak edo esanak edo eresiak eskatzen duanez. Esaterako: Iru etxe. Iru etxe? Nongo etxea? Orbeo etxea.

OTSGOIENA TA BESTE OTSGOIEK

Esanean askotan otsgoien bat eta beste otsgoi batzuk egoten dira.

Esaterako: Pero etorri da etxera. Peru etxera etorriko baliz.

Otsgoiena Pe aukaldian dago: beste ots goiek ra, to, ta liz aukaldietan.

OTSGOIENA TA BESTE OTSGOIEK IPINTEKO ARAUEK

Lenengo araua. Otsgoiena, galdetzeko itauntzeko itzean ipinten da, galdetzen itauntzen danean.

Bigarren araua: Otsgoiena erantzuteko yardesteko itzean egoten da, egin dan galde itaun bateri edo bururatu dugun galde bateri erantzuten dauyogunean.

Irugarren araua. Otsgoienaz beste otsgoiek, errez oguzteko aukaldietan ipinten dira.

Laugarren araua. Otsgoiena erantzuteko itzean ipinteko, erantzutekoitza geienez gertaitzaren aurrean yartzen da. Erderean gertaitzaren ostean.

Bostgarren araua. Erantzuteko itza gertaitza danean, otsgoiena gertaitzean ipinten da, ta orretarako gertaitza esanaren aurrealdean ipintera yoten da.

Seigarren araua. Gertate bat ala beste bat gertatu zan galdetzen itauntzen dugunean, egin gertaitza erabilten da, bai galdetzeko, bai erantzuteko.

Zazpigarren araua. Gertate bat gertatu dan ala ez dan gertatu galdetzen itauntzen dugunean, ez gertaitzkondokoa gertaitzaren aurrean yartzen da, ta gertaitz laguntzailea badago, laguntzallearen aurrean.”

3.9. Aita Santuaren lendakaritza (286)

“AITA SANTUAREN LENDAKARITZA TA IRAKASLETZA NAGUSIA

Aita Santua Kristoren Ordekoa, Elizako Lendakaria ta Irakasle Nausia da.

Yesukristok amabi apostolu autatu situán bere ikasleen artean, ta ayen Nausi Kepa egin zuen.

Apostoluek gotzaiak sagaratu zituzten kristaudien Nausi izateko, ta agindu zeuen eurek ere beste gotzai batzuk sagartu, ta euren Ordeko uzteko. Emendik dator Elizako gotzaien yarraia, munduaren azkeneraíne yarraiko duana. Apostoluek gotzai ei euren Nausitza ta Irakasletza utzi zeuen. Vat. Ilgna. DV. 7.

Kepa Pedro il zanean, aren Lendakaritza ta Irakasletza Nausia Erromako Gotzaiak Aita Santuak artu zuan.

Aita Santua, aulkitik itz egiten duanean. Yainkoaren laguntzarekin, utseziña da. Aulkitik itz egitea, ziñeste ta oiteei buru egien bat ebaztea da.

Vaticanoko lenengo ta Iign. Gotzaiabaztarrek irakasten dutenez, gure naiaren ta adiaren menpetasuna batez ere Erromako Gotzaiaren Irakasletza yatorrari zor zaio, aulkitik itz egiten ez duanean ere. Itzalez bere Irakasletza nausia autortu bear dugu, ta zintzo bere eretxira etorri bear gera, berak erakutsi duan guraren eiñean. Ta au agiriaren izakeratik, irakatsi bat askotan eatetik, baita ere bere esakeretatik ikusi leike. Iign. Vat. LG 25.

Elizarekin sumatea sentitzea, Aita Santuarekin sumatea sentitzea da.

Apai zek apaizgaitegi etan ikasten dute Elizaren irakatsia, ta ziñestunek euren irakatsiek yarraiz detzakete, ezpaian bat dagoenean apaiz on ta yakitun bateri galdeturik.”

3.10. Atxiteen erak (288)

“ATXITEEN ERAK

Baitzeko errea izakien gertateek baitzeko batez ere erabilten da, ta emendik artzen da bere izena. Ukatzeko, galdetzeko, ezpaia adiratzeko ere bada. Antón etorri da. Antón etorri da? Ez da etorri. Baldin bada etorriko zan.

Baldiñen errea baldiñek esateko da. Baldiñek ustegarriek eta usteezgarriek dira, ustez gertatekoek eta ustez ez gertatekoek. Baldiñ usteezgarriek baldiñen errea ipinita dagozen bezela esaten dira.

Baldinpeko errea baldinpean zerbait baitzeko edo ukatzeko da. Euririk egingo ez balu, mendira yoango ginzake, giñake.

Agintzeko errea batez ere agintzeko da, ta emendik artzen du izena. Eskatzeko, aolkatzeko, onu emateko, zerbait egiten uzteko ere bada. Agintzeko: yoan adi dendara, ta ekarri zak ogia. Eskatzeko: Yauna, emauguzu bakea. Aolkatzeko: Onak izan zaitezte, ikasi egizue asko, guztiei on egiteko gertu zaitezte, ikasi egizue asko. Uzteko: Yoan adi yolastera, nai baduk.

Bitartez agintzeko errea beste baten bitartez norbaiteri agintzeko da batez ere. Esayok Antoneri etxera etorri daitela. Eskatzeko ta zerbait egiten usteko ere erabilten da. Eskatzeko: Esayok Antoneri, arren etorri dakigula. Uzteko: Yoan daitela, nai bažuk, badik, bayok.

Elburuen errea, elburuek, zertarakoek, esateko da batez ere, ta emendik artu da izena. Bizi gaitezen, yan egin bear dugu. Norbere gurek, naiek esateko errea noizpait erabilten da: Anton etorri daiten gura nuke, nai nuke.

Subjuntivo izenak, subjungere-tik, beste gertaitz baten ondoan erabilteko errea esan nai du. Zer ikurri, esan nai duan, ez dauku adirazten. Bitartez aginteko errea ta elburuen errea izen argiagoeke dira. Euskerean ez dago subjuntivo aitatu bearrik.

Al izatearen ere al izatea adiratzeko da.

D-ator-ke, d-akar-ke berez baitzeko erako geroko aldia da. Oneri al izatearen esannaia ere eman dauioгу.

Etorri naiteke, ekarri dezaket, ekarri dagiket, al izatea adiratzeko bakarrik erabilten dira.

Al izatea al itzarekin asko esaten da, gertaitz laguntzalleekin. Al naiz etorri. Al dut etorri. Al duk ekarri. Ta abar.”

3.11 Ika (188 eta urrengoak)

3.11.1. Gertaitzen atxiteek

3.11.1.1. Gerateko gertaitzek

“IZAN BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor, zer-izan-nori-z-k

Ni	ona	n-au-k	n-atxa-kok, kiek
A	ona	d-o-k	ya-tak, kok, kuk, kiek
Gu	onak	g-o-zak	g-atxa-kozak, kiezak
	g-aitu-k		
Ayek	onak	d-ozak	ya-tazak, kozak, kuzak, kiezak
	d-itu-k		

Lengoa gertaten. Nor-izan-nori-n

Ni	ona	n-indu-an	n-intxa-kona, kieran
A	ona	z-u-an	ya-taan, koan, kuan, kieran
Gu	onak	g-indu-azan	g-intxa-koazan, kiezan
Ayek	onak	z-u-azan	ya-taazan, koazan, kuazan, kieazan

BALDIÑEN EREA

Oraingoa. Ba-nor-izan-nori-k

Ni	ona	ba-n-indu-k	ba-n-intxa-kok, kiek
A	ona	ba-l-u-k	ba-l-itxa-dak, kok, kuk, kiek
Gu	onak	ba-g-indu-zek	ba-g-intxa-kozak, kiezak
Ayek	onak	ba-l-itu-zek	ba-l-itxa-dazak, kozak, kuzak, kiezak

Lengoa. Ba-nor-izan-nori-a-z-n

Ni	ona izan	ba-n-indu-a-n	ba-n-intxa-koan, kean
A	ona	ba-l-u-a-n	ba-l-itxa-daan, koan, kuan, kean
Gu	onak	ba-g-indu-a-zan	ba-g-intxa-koazan, keazan
Ayek	onak	ba-l-u-a-zan	ba-l-itxa-daazan, koazan, kuazan, keazan

BALDINPEAN BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor, zer-izan-ke-nori-k

Ni	zoritsua	n-intza-ke-k	n-intza-yok, yek; kok, kiek
A		l-itza-ke-k	l-itza-dak, yok, guk, yek; kok, kiek
Gu	zoritsuek	g-intza-ke-zek	g-intza-yok, yek; yozak, yezak
Ayek		l-itza-ke-zek	l-itza-dazak, yozak, guzak, yesca
	Oraingoa	Ni nintzakek	
	Gerokoa	Ni izango nintzakek	

Lengoa. Nor-gertaitza-ke-nori-a-z-n

Ni	zoritsua	n-intxa-ke-a-n	n-intxa-koan, kean
A	zoritsua	l-itxa-ke-a-n	l-itxa-daan, koan, kuan, kean
Gu	zoritsuek	g-intxa-ke-a-zan	g-intxa-koazan, keazan
Ayek	zoritsuek	l-itxa-ke-a-zan	l-itxa-daazan, koazan, kuazan, kieazan
	Lengoa	Ni nintxakoak	
	Lengozgerokoa	Ni izango ninduan nintxaan	

AGINTZEKO EREA

B-izan-nori-k

A	ona	izan	b-eite-k	b-e-ki-dak, ok, guk, ek, oek
Ayek	onak	izan	b-eite-zek	b-e-ki-dazak, ozak, guzak, ezak

AL IZATEAREN EREA

BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor-gertaitza-nori-k

Ni	ona	izan	ñ-aite-ke-k	ñ-ai-ki-ok, ek
A	ona		y-aite-ke-k	y-ai-ki-dak, ok, guk, ek
Gu	onak		ğ-aite-ke-zak ⁹	ğ-ai-ki-ozak, ezak
Ayek	onak		y-aite-ke-zak	y-ai-ki-dazak, guzak, ezak

Lengoa. Bigarren norkia itzlaguna bakarrik danean atxitean

Ni	ona	izan	ñ-einte-ke-an	ñ-ein-ki-oan, ean
A	ona		y-eit-ke-an	y-ei-ki-daan, oan, guan, ean
Gu	onak		ğ-einte-ke-azan	ğ-ein-ki-oazan, eazan
Ayek	onak		y-eite-ke-azan	y-ei-ki-daazan, oazan, guazan, eazan

BALDINPEKO AL IZATEAREN EREA

Oraingoa. I itzlaguna bakarrik danean

Ni	ona	izan	ñ-inte-ke-k	ñ-ein-ki-ok, ek
----	-----	------	-------------	-----------------

⁹ đ, t, ñ, ll, ğ, ž, izki ta ots leunduek dira, ta euskeraz erabilten dira. Gañeko marratxoarekin nere ustez obeki adirazten dira, bestela baño (8. or.).

A	ona	ll-ite-ke-k	ll-ei-ki-dak, ok, guk, ek
Gu	onak	ġ-inte-ke-zak	ġ-ein-ki-ozak, ezak
Ayek		ll-ite-ke-zak	ll-ei-ki-dazak, ozak, guzak, ezak

Lengoa. I itzlaguna bakarrik danean

Ni	ona	izan	ñ-inte-ke-an	ñ-ein-ki-oan, ean
A	ona		ll-ite-ke-an	ll-ei-ki-daan, oan, guan, ean
Gu	onak		ġ-inte-ke-azan	ġ-ein-ki-oazan, eazan
Ayek	onak		ll-ite-ke-azan	ll-ei-ki-daazan, oazan, guazan, eazan

3.11.1.2. Iragateko gertaitzek

“EU, EDU, ITU; EUKI, EDUKI, IDUKI; EUKIN, UKEN, UKAN
BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor-eu-itu-nori-a-nork-k-z-la, ela, lako

Nik	saria		y-u-at	y-au-tzoat, tzeat
Arek	emoten		y-o-k	-tak, tzok, zkuk, tzek
Guk			y-u-agu	-tzoagu, tzeagu
Ayek			y-u-ek	-zteez, tzoek, zkuek, tzeek
Nik	sariak		y-itu-at	y-au-tzoadaz, tzeadaz
Arek	emoten		y-itu-k	-ztazak, tzoak, zkuzak, tzezak
Guk			y-itu-aguz	-tzoaguz, tzeaguz
Ayek			y-itu-ezak	
			y-u-adaz	
			y-o-zak	
			y-u-aguz	
			y-u-ezak	

Ni	arek	eroaten	ñ-o-k	ñ-au-ok, ek
	ayek		ñ-au-ek	-ioek, iEEK
Gu	arek	eroaten	ġ-aitu-zek	ġ-au-tzozak, tzezak
	ayek		ġ-aitu-ezak	-tzoetak, tzezak

BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor-eu, itu-nori-a-nor-k-z-la, ela lako

Nik	sariak		y-itu-at	y-au-z-oadaz, eadaz
Arek	emoten		y-itu-k	-tazak, ozak, kuzak, ezak
Guk			y-itu-agu	oaguz, eaguz
Ayek			y-itu-ezak	-teezak, oezak, kuezak, eezak
			y-u-adaz	
			y-o-zak	
			y-u-aguz	
			y-u-ezak	

Ni	arek	eroaten	ñ-o-k	ñ-au-ok, ek, iok, iek
	ayek		ñ-au-ek	-ioek, iEEK
Gu	arek	eroaten	ġ-aitu-zek	ġ-au-z-ozak, ezak
	ayek		ġ-aitu-ezak	-oezak, eezak

Lengoa gertaten. Nork-eu-z-nori-a-z-n. La, larik

Nik	sari		ñ-u-a-n	ñ-eu-tzoan, tzean
Ak	emoten		y-u-a-n	y-eu-ztaan, tzoan, zkuan, tzean
Guk			g-iñu-a-n	g-eun-tzoan, tzean
Ayek			y-u-a-yen	y-eu-ztaayen, tzoayen, zkuayen, tzeayen

Nik	sariek		ñ-u-a-zan	ñ-eu-toazan, tzeazan
Ak	emoten		y-u-a-zan	y-eu-ztaazan, tzoazan, zkuazan, tzeazan
Guk			g-iñu-a-zan	g-eun-tzoazan, tzeazan
Ayek			y-u-a-yezán	y-eu-ztaayezan, tzoayezan, zkuayezan, tzeayezan
Nik	sari		ñ-u-a-n	ñ-eu-zoan, ean
Ak	emoten		y-u-a-n	y-eu-ztaan, oan, kuan, ean
Guk			g-iñu-a-n	g-eun-zoan, ean
Ayek			y-u-a-yen	y-eu-ztaayen, oayen, kuayen, eayan
Nik	sariek		ñ-u-a-zan	ñ-eu-zoazan, eazan
Ak	emoten		y-u-a-zan	y-eu-ztaazan, oazan, kuazan, eazan
Guk			g-iñu-a-zan	g-eun-zoazan, eazan
Ayek			y-u-a-yezán	y-eu-ztaayezan, oayezan, kuayezan, eayezan

Lengoa gertaten. Ni, gu-indu-nori-a-nork-z-n-la, larik, e.a.

Ni	arek	eroaten	ñ-indu-an	ioan, iean
	ayek		ñ-indu-ayen	ioayen, ieayen
Gu	arek	eroaten	ğ-indu-azan	ioazan, ieazan
	Ayek		ğ-indu-ayezan	ioayezan, ieayezan

BALDIÑEN EREA

Oraingoa. Ba-nork-eu-nori-nork-k

Nik	saria		ba-ñ-ok	ba-ñ-eu-z-ak, ek
Ak	emongo		ba-ll-o-k	ba-ll-eu-z-tak, ok, kuk, ek
Guk			ba-g-iñu-k	ba-ğ-eun-z-ok, ek
Ayek			ba-ll-u-e-k	ba-ll-eu-z-tek, oek, kuek, eek
Nik	sariek		ba-ñ-o-zak	ba-ñ-eu-z-ozak, ezak
Ak	emongo		ba-ll-o-zak	ba-ll-eu-z-tazak, ozak, kuzak, ezak
Guk			ba-ğ-iñu-zek	ba-ğ-eu-z-ozak, ezak
Ayek			ba-ll-u-e-zak	ba-ll-eu-z-teezak, oezak, kuezak, eezak

Oraingoa. Ba-nor-indu-nori-nork-z-k

Ni	arek	eroango	ba-ñ-indu-k	yok, yek
	Ayek		ba-ñ-indu-ek	yoek, yeek
Gu	arek	eroango	ba-ğ-indu-zek	yozak, yezak
	Ayek		ba-ğ-indu-ezek	yoezak, yeezak

BALDINPEKO EREA

Oraingoa. Nork-eu- edu, itu-ke-nori-z-k-la, larik e.a.

Nik	saria		ñ-eu-ke-k	ñ-eu-z-(ki)-ok, ek
Ak	emongo		ll-eu-ke-k	ll-eu-z-(ki)-dak, ok, guk, ek
Guk			ğ-eun-ke-k	ğ-eun-z-(ki)-ok, ek
Ayek			ll-eu-ke-ek	ll-eu-z-(ki)-dek, oek, guek, ee
Nik	sariek		ñ-eu-ke-zak	ñ-eu-z-(ki)-ozak, ezak
Ak	emongo		ll-eu-ke-zak	ll-eu-z-(ki)-dazak, ozak, guzak, ezak
Guk			ğ-eun-ke-zak	ğ-eun-z-(ki)-ozak, ezak
Ayek			ll-eu-ke-ezak	ll-eu-z-(ki)-dezak, oezak, guezak, eezak

Oraingoa. Nor-indu-ke-nori-z-k-la, larik e. a.

Ni	aren	eroango	ñ-indu-ke-k	ñ-indu-k	iok, iek
	ayek		ñ-indu-ke-ek	i-indu-ek	ioek, ieek
Gu	arek	eroango	g-indu-ke-zak	g-indu-zek	iozak, iezak
	ayek		g-indu-ke-ezak	g-indu-ezek	ioezak, ieezak

AL IZATEAREN EREA
AL IZATEA BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor-egin, ein-ke-nori-k, a, ka-la, lako, t.a.

Ogia	nik	ekarri	y-ai-ke-at	y-ai-ki-oat, eat
	arek		y-ai-ke-k	y-ai-ki-dak, ok, guk, ek
	guk		y-ai-ke-agu	y-ai-ki-oagu, eagu
	ayek		y-ai-ke-ek	y-ai-ki-dek, oek, guek, eek
Ogiek	nik	ekarri	y-ai-ke-adat	y-ai-ki-oadaz, eadaz
	arek		y-ai-ke-zak	y-ai-ki-dazak, ozak, guzak, ezak
	guk		y-ai-ke-aguz	y-ai-ki-oaguz, eaguz
	ayek		y-ai-ke-ezak	y-ai-ki-dezak, oezak, guezak, eezak
Ni	arek	ekarri	ñ-agi-ke-k	ñ-ai-ki-ok, ek
	ayek		ñ-agi-ke-ek	ñ-ai-ki-oe-k- eek
Gu	arek	ekarri	ğ-agi-ke-zak	g-ai-ki-ozak, ezak
	ayek		ğ-agi-ke-ezak	g-ai-ki-oezak, eezak

Lengoa. Nork-egin, ein-ke-nori-a-n

Nik	saria	ekarri	n-ei-ke-a-n	ñ-ei-ki-oan, ean
Ak			ž-ei-ke-a-n	ž-ei-ki-daan, ean, oan, guan, ean
Guk			ğ-ein-ke-a-n	ğ-ein-ki-oan, ean
Ayek			ž-ei-ke-ean	ž-ei-ki-dean, oean, guean, eean
Nik	sariiek	ekarri	ñ-ei-ke-azan	ñ-ei-ki-oazan, eazan
Ak			ž-ei-ke-azan	ž-ei-ki-dazan, oazan, guazan, eazan
Guk			ğ-ein-ke-azan	ğ-ein-ki-oazan, eazan
Ayek			ž-ei-ke-azan	ž-ei-ki-deazan, oezazan, gueazan, eeazan

Lengoa. Nor-gertaitza-ke-nori-nork-a-n

Ni	arek	ekarri	ñ-engi-ke-an	ñ-engi-ki-oan, ean
	ayek		ñ-engi-ke-ean	ñ-engi-ki-oean
Gu	arek	ekarri	ğ-engi-ke-azan	ğ-engi-ki-oazan
	ayek		ğ-engi-ke-eazan	ğ-engi-ki-oeazan

BALDINPEKO AL IZATEAREN EREA

Oraingoa. Nork, zerk-egin, ein-ke-nori, zeri-z-k

Nik	saria	ekarri	ñ-ei-ke-k	ñ-ei-k, ok, ek, oek
Arek			ll-ei-ke-k	ll-ei-k, dak, ok, guk, ek, oek
Guk			ğ-ein-ke-k	ğ-iñei-k, ok, ek
Ayek			ll-ei-ke-e-k	ll-ei-e-k, dek, oek, guek, eek
Nik	sariiek	ekarri	ñ-ei-ke-zek	ñ-ei-zek, ozek, ezek
Arek			ll-ei-ke-zek	ll-ei-zek, dazek, ozek, guzek, ezek
Guk			ğ-ein-ke-zek	ğ-iñei-zek, ozek, ezek
Ayek			ll-ei-ke-e-zek	ll-ei-e-zek, dezek, oezek, guezek, eezek

Oraingoa. Nor-gertaitza-ke-nori, zeri-nork, zerk-k

Ni	arek	ekarri	ñ-ei-ke-k	ñ-ei-k, ok, ek, oek
	ayek		ñ-engi-ke-e-k	ñ-engi-e-k, oek, eek
Gu	arek	ekarri	ğ-engi-ke-zek	ğ-engi-zek, ozek, ezek
	ayek		ğ-engi-ke-ezek	ğ-engi-e-zek, oezek, eezek

Lengoa. Oraingo atxite guztiei azkenean –a-n ipinita lengo aldia da.

3.10.2. Laguntzalle ez diran gertaitzek

3.10.2.1. Gerateko gertaitzek

ETORRI BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor, zer-etorri-nori, zeri-k

Ni	etxera	ñ-ator-k,	ok, ek, kok, kiek
A		y-ator-k,	dak, ok, kuk, ek, kok, kiek
Gu		ğ-ator-zek,	ozak, ezak, kozak, kiezak

Ator orde, abil, ago, atza, arrai, oa ipini.

Lengoa gertaten. Nor, zer-etorri-nori, zeri-a-n

Ni	etxera	ñ-entor-a-an,	oan, ean, koan, kieran
A		y-entor-a-an,	daan, oan, kuan, ean, koan, kieran
Gu		ğ-entor-a-zan,	daazan, oazan, kuazan, eazan, koazan, kieazan
Ayek		y-entor-a-zan,	daazan, oazan, kuazan, eazan, koazan, kieazan

Entor, etor orde, enbil, abil; engo, ego; entza, etza; errai; iñoa, ioa ipini.

BALDIÑEN EREA

Oraingoa. Ba-nor-etorri-nori-k

Ni	autoan	ba-ñ-entor-k,	ok, ek, kok, kiek
A		ba-ll-e-tor-k,	dak, ok, kuk, ek, kok, kiek
Gu		ba-ğ-entor-zak,	ozak, ezak, kozak, kiezak
Ayek		ba-ll-entor-zak,	dazak, ozak, kuzak, kozak, kiezak

BALDINPEKO EREA

Oraingoa. Nor-etorri-nori-k

Ni	ariñago	ñ-entor-ke-k,	ñ-entor-k,	ok, ek, kok, kiek
A		ll-entor-ke-k,	ll-entor-k,	dak, ok, kuk, ek, kak, kiek
Gu		ğ-entor-ke-zak	ğ-entor-zak,	ozak, ezka, kozak, kiezak
Ayek		ll-entor-ke-zak	ll-entor-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak, kozak, kiezak

Entor, etor orde, enbil, eabil; engo, ego; entza, etza; errai, erra; iñoa, ioa.

AGINTZEKO EREA

Nor-etorri-nori

A	b-entor-k,	dak, ok, kuk, ek, kok, kiek	arin etxera
Ayek	b-entor-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak, kozak, kiezak	arin etxera

Ator orde, abil, ago, atza, arrai, oa ipini.
Etor orde, eabil, ego, etza, errai, oa edo ioa.

GERATEKO GERTAITZEK ETORRI, IBILI, EGON, ESTÁN, YARRAI, YOAN BAITZEKO EREA

Oraingoa. ñ z g z-gertaitza-nori-z

ñ-ator-k	ñ-abil-k	ñ-ago-k	ñ-atza-k	ñ-arrai-k	ñ-oa-k
ž-ator-k	ž-abil-k	ž-ago-k	ž-atza-k	ž-arrai-k	ž-oa-k
ğ-ator-zek	ğ-abil-zek	ğ-ago-zek	ğ-a-atza-zek	ğ-arrai-zek	ğ-oa-zek
ž-ator-zek	ž-abil-zek	ž-ago-zek	ž-atza-zek	ž.-arrai-zek	ž-oa-zek

Lengoa. ñ z g z-gertaitza-nori-z-a-n

ñ-entor-a-n	ñ-enbill-a-n	ñ-engo-a-n	ñ-entza-a-n		ñ-iño-a-n
ž-etor-aan	ž-ebill-a-n	ž-ego-a-n	ž-etza-a-n	ž-errai-a-n	z-ioa-a-n
ğ-entor-z-aan	ğ-enbi-z-aan	ğ-engo-zaan	ğ-entza-zaan		ğ-iñoa-zaan
ž-etor-z-aan	ž-ebil-z-aan	ž-ego-zaan	ž-etza-zaan	ž-errai-zaan	z-ioa-zaan

3.10.2.2. Iragateko gertaitzek

EKARRI
BAITZEKO EREA

Oraingoa. Nor, zer-ekarri-nori, zeri-a, k

Nik	saria		y-akar-at,	oat, eat, koat, kieat
Arek			y-akar-k,	dak, ok, kuk, ek, kok, kiek
Guk			y-akar-guk,	oguk, eguk, koguk, kieguk
			y-akar-agu,	oagu, eagu, koagu, kieagu
Ayek			y-akar-e-k,	dek, oek, kuek, eek, koek, kieek
Nik	sariiek		y-akar-adaz,	oadaz, aedas, koadaz, kieadaz
Arek			y-akar-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak, kozak, kiezak
Guk			y-akar-guzek,	oguzek, eguzek, koguzek, kieguzek
			y-akar-aguz,	oaguz, eaguz, koaguz, kieaguz
			y-akar-ezak,	dezak, oezak, kuezak, eezak, koezak, kiezak
Ni	arek	autoan	ñ-akar-k,	ok, ek, kok, kiek
	ayek	autoan	ñ-akar-ek,	oek, eek, koek, kieek
Gu	arek	autoan	ğ-akar-zak,	ozak, ezak, kozak, kiezak
	Ayek	autoan	ğ-akar-ezak,	oezak, eezak, koezak, kieezak

Akar orde z oraingo aldi guztian, zukan eta ikan, agi, ai, aki, akus, auka, asa, amo, arakar, arabil, arama, aroa, ario, itxaro, azau, antzu ipini. Egin, ein, yakin, ikusi, euki, esan, emon, erakarri, erabill, eraman, eroan, yaron, itxaron, ezautu, entzun gertaitzetatik.

Lengoa. Nork-ekarri-nori-a-z-n

Nik	saria		ñ-ekar-an,	oan, ean
Ak			y-ekar-an,	daan, oan, kuan, ean
Guk			ğ-eñekar-an,	oan, ean
Ayek			y-ekar-ayen,	daayen, oayen, kuayen, eayen
Nik	sariiek		ñ-ekar-azan,	oazan, eazan
Ak			y-ekar-azan,	daazan, oazan, kuazan, eazan
Guk			ğ-eñekar-azan,	oazan, eazan
Ayek			y-ekar-ezan,	daayezan, oayezan, kuayezan, eayezan

Ekar, enekar orde z, erakar, enerakar; erabil, enerabil; erama, enerama; eroa, eneroa; egi, enegi; ekus, enekus; euka, eneuka; itxaro, intxaro, t. a. ipini.

Lengoa. Nor-ekarri-nori-a-nork-n

Ni	arek		ñ-enkar-an,	oan, ean
	ayek		ñ-enkar-ayen,	oayen, eayen
Gu	arek		ğ-enkar-azan,	oazan, eazan
	ayek		ğ-enkar-ayezan,	oayezan, eayezan

Enkar orde z erankar, eranbil, engi, enkus, induka, arama, aroa, t. a. ipini.

BALDIÑEN ERA

Oraingoa. Ba-nork-ekarri-nori-z-k, itzlaguna

Nik	saria	ba-ñ-ekar-k,	ok, ek
Ak		ba-ll-ekar-k,	dak, ok, kuk, ek
Guk		ba- ġ-eñekar-k,	ok, ek
Ayek		ba-ll-ekar-ek,	dek, oek, kuek, eek
Nik	sariek	ba-ñ-ekar-zak,	ozak, ezak
Ak		ba-ll-ekar-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak
Guk		ba- ġ-eñekar-zak,	ozak, ezak
Ayek		ba-ll-ekar-ezak,	dezak, oezak, kuezak, eezak

Oraingoa. Ba-nor-ekarri-nori-nork-k, itzlaguna

Ni	arek	autoan	ba-ñ-enkar-k,	ok, ek
	ayek		ba-ñ-enkar-ek,	oek, eek
Gu	arek		ba-g-enkar-zak,	ozak, ezak
	ayek		ba-g-enkar-ezak,	oezak, eezak

BALDINPEKO ERA. Baldinpean baitzeko era

Oraingoa. Nork-ekarri-ke-nori-k, itzlaguna

Nik	saria	ñ-ekar-ke-k	ñ-ekar-k,	ok, ek
Ak		ll-ekar-ke-k	ll-ekar-k,	dak, ok, kuk, ek
Guk		ġ-eñekar-ke-k	ġ-eñekar-k,	ok, ek
Ayek		ll-ekar-ke-ek	ll-ekar-ek,	dek, oek, kuek, eek
Nik	sariek	ñ-ekar-ke-zak	ñ-ekar-zak,	ozak, ezak
Ak		ll-ekar-ke-zak	ll-ekar-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak
Guk		ġ-eñekar-ke-zak	ġ-eñekar-zak,	ozak, ezak
Ayek		ll-ekar-ke-ezak	ll-ekar-ezak,	dezak, oezak, kuezak, eezak

Yasalea ni, gu danean. Nor-ekarri-nori-nork-n. itzlaguna

Ni	arek	ariñago	ñ-enkar-ke-k	ñ-enkar-k,	ok, ek
	ayek		ñ-enkar-ke-ek	ñ-enkar-ek,	oek, eek
Gu	arek	ariñago	ġ-enkar-ke-zak	ġ-enkar-zak,	ozak, ezak
	ayek		ġ-enkar-ke-ezak	ġ-enkar-zak,	oezak, eezak

AGINTZEKO EREA

Ogia	arek	b-ekar-k,	dak, ok, kuk, ek
	ayek	b-ekar-ek	dek, oek, kuek, eek
Ogiek	arek	b-ekar-zak,	dazak, ozak, kuzak, ezak
	ayek	b-ekar-ezak,	dezak, oezak, kuezak, eozak

4. Gramática-ren hiztegia

Juan Atutxaren gramatika hau gure eskuetara heldu zanean, argi ikusi genduan lana burutzeko hiztegitxo bat jarri beharko genduala. Argi, asko ta asko direlako entzuten ohituta ez gagozan berbak, gatx egiten jakuzanak. Resurrección María Azkueren *Euskal Izkindea* liburuaren sarrerako berba batzuk aitatu gurako geunkez interesgarri eta polit iruditu eta sortzaile honeen zailtasunen espilu diralako. Holan diño Azkuek: “*Erderaz orainarteko izkiralariak legez izkinde au izkiratu baneu arazu ta buru-auste gitšiago eman izango eustan nire asmoak, ez nintzan itz barririk sortuteko peremina latzean egongo, liburu bi baten ipini bearrik bere ez neuan izango, eta ganera nire lantšo onek eukiko dauzan arerio askok abegi ohea egingo eutsen.*

‘Itz barri asko’ sortu bear izan dautaz: itz barriak ezdaiz beingoan belarriratuten, augaitik nire agerkeran askok bere modukotzat eukiko dauela uste daut...”.

Ez dogu zalantzarik gure J. Atutxa be *arazo* honen aurrean aurkitu eta hitz barriak sortu behar izan dauzela. Guk hiztegitxo honetan behingoa belarriratu ez jakuzan hitz batzuk bildu doguz eta hiztegi

bat edo bestez (Larramendi, Aizkibel, Mujika, Azkue eta *Orotariko Euskal Hiztegia*) baliatu izan gara hitz barria edo nonbaitetik hartua dan ikusteko.

Jarraian, ba, hitz zerrenda dozue (euskal hitza beltzez, gaztelaniazkoa kurtsibaz eta agertzen dan orrialdea parentesi artean), hitzoi buruzko hainbat azalpenen laguntzaz.

arautea: *regla* (8)¹⁰

atxite: *aglutinación*¹¹

atxitedun izkerea: *lengua aglutinante* (6)

atxiteen erak: *modos de las aglutinaciones* (46)

agintzeko erea: *modo imperativo*¹²

Al izate esateko erea: *modo potencial*

baitzeko erea: *modo afirmativo*¹³

baldinpeko erea: *modo condicionado*¹⁴

baldiñen erea: *modo condicionante*

bitartez agintzeko erea: *modo imperativo inmediato*

elburuen erea: *modo final*

gertaitzaren izena: *nombre verbal*

gertaitzaren izenondokoa: *adjetivo verbal*

aukaldi: *sílaba* (182)¹⁵

azkenizki: *sufijo* (10)¹⁶

betegi: de unión (74) “*una a de unión: a betegi bat*”

biurtedun izkerea: *lengua flexional* (6)

buruete: *pensamiento* (7)¹⁷

bururalte: *discurso* (174)

edu: *ejemplo* (6)¹⁸

egite-abotsa: *voz activa* (72)

egite-yasate abotsa: *voz activo-pasiva* (72)

elkaryostea: *sintaxis* (10)¹⁹

ereztekoa: *comparativo* (izenondokoaz “*adjetivo*”) (20)

etsi: *juicio* (6)²⁰

gertaitza, gertate-itza: *verbo* (10)²¹

gerateko gertaitzek: *verbos intransitivos* (46)

iragateko gertaitzek: *verbos transitivos* (46)

gertaitzen atxiteek: *aglutinaciones de los verbos* (46)

gerta-itz ondokoa: *adverbio* (10)

adiraltzekoek: *de raciocinio* (170)²²

aldikoek: *de tiempo* (164)

anditzekoek: *amplificativas* (170)

azaltzekoek: *explicativas* (170)

baitetzekoek eta ukatzenekoek: *afirmativos y negativos* (162)

baldiñetakoek: *condicionantes* (170)

erea esatekoek. Erakoek: *de modo* (162)

ereztekoek: *comparativas* (170)

erezteko eta geien esatekoek: *de comparación y de expresar el grado más alto* (166)

ezpaikoek: *de duda* (162)

¹⁰ Larramendik ‘araudea’: *reglamento* dakar. Mujikak ‘arautea’: *regla*.

¹¹ Mujikak ‘atxitu’ aditza bai, baiña izen moduan ez. Azkuek (1891) ‘iratzi’, ‘irazmen’ dakar *aglutinar*, *aglutinación* esateko.

¹² Larramendik ‘aguintaricoya’ darabil *imperativo* adierazoteko. Azkuek ‘aginpeneko aldamera’ darabil (1891).

¹³ Mujikak ‘baitu’, zentzu honegaz. Azkuek bere Hiztegian (1984) ‘baitu’: *consentir* dakar.

¹⁴ Azkuek (1891) ‘baiurritua’ dakar.

¹⁵ Mujika eta Azkuek (1891) ‘izkai’ dakarre. Larramendik ‘gucibechia’.

¹⁶ Mujikak *letra final* adieragaz.

¹⁷ Azkuek (1891) ‘gogamen’ dakar. Mujikak, ‘buruetan’: *discurriendo*. Aizkibelek ‘buruera’: *fundamento*, *juicio* (Ast. IIº cxxx). Azkuek (1984) ‘edu’: 2. (B-d-g-i-m) *norma*, *categoría*. ‘eredu’ren kontraizio dala diño.

¹⁸ Azkuek (1891) ‘gertari’ dakar. Mujikak *modelo*, *molde*, *patrón*.

¹⁹ Azkuek (1891) ‘alkarmen’ dakar. Larramendik: *construcción*: en la gramática, ‘hitzaldiaren equida’.

²⁰ Mujikaren hiztegian agertzen da.

²¹ Mujikaren hiztegian agertzen da.

²² Mujikak ‘adiratu’: *cocebir mentalmente*.

ondorekoek: *de conclusión* (170)
salneurrikoek: *de precio* (162)
tokikoek: *de lugar* (162)
yarraitzekoek: *continuativas* (170)
zeinbat esatekoek. Zeinbatekoek: *de cantidad* (162)

gertateen aldia: *nombre de los tiempos* (46)

oraingoa: *presente*
oitezko oraingoa: *presente de costumbre*
gerokoa: *futuro*²³
oingozlana: *antepresente*
oitezko oingozlana: *antepresente de costumbre*
gerozlana: *antefuturo*
oingozlen urriña: *antepretérito*
lengoa gertaten: *pretérito sucediendo*
oitezko lengoa: *pretérito de costumbre*
lengozgerokoa: *postpretérito*
lengo urriña: *pretérito remoto*
lengorezlena: *antepostpretérito*
lengourriñezlana: *antepretérito remoto*
oitezko lengozlana: *antepretérito de costumbre*

gogo-itx, gogokera itz: *interjección* (10)²⁴

itzulte: *traducción* (6)²⁵

lagundun otsak: *sonidos consonantes* (8)

lagungabeko otsak: *sonidos vocales* (8)

lengozgeroa: *futuro de pretérito* (46)

lot-itza. *conjunción* (10)²⁶

aurkakoek: *adversativas* (168)²⁷
bereztekoek: *disyuntivas* (168)
egizat ematekoek: *concesivas* (168)
geitzekoek: *aditivas* (168)
lekatekoek: *exceptivas* (168)²⁸
zergatikoek: *causales* (168)

norkia: *nombre de persona* (16)

norkienek: *personales* (izenordeez ari dala) (24)

oingozgerokoa: *futuro de presente* (46)

oguzkera: *pronunciación* (10)²⁹

otsgoiena: *acento* (182)³⁰

yasate abotsa: *voz pasiva* (72)

5. Bibliografia

AIZKIBEL, F., 1884: *Diccionario Basco-Español titulado Euskeratik erderara biurtzeko itztegia*. Casa editorial de Eusebio López. Tolosa.

AZKUE, R. M^a, 1891: *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbon, Astuiko Josen Moldegintzan.

_____, 1984: *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Euskaltzaindia. Bilbo.

COLECCIÓN del Archivo Histórico de la Provincia de Loyola. Fichas dedicadas al Padre Antonino Atucha Aldecoa y al Padre Juan Atucha Iza.

²³ Larramendik ‘gerocoera’ dakar.

²⁴ Azkuek (1891) ‘sentszun-itx’ dakar; Larramendik, ‘ezartea’.

²⁵ Azkuek (1891) ‘biurmen’, ‘itzulmen’; Larramendik ‘ezartea’.

²⁶ Azkuek (1891), ‘alkargai’; Laramendik ‘itsasquida’.

²⁷ Azkuek (1891), ‘ostetasuneko’.

²⁸ Mujikak ‘lekat’ dakar *excepto* adierazoteko. Aizkibelek, ‘lekat (Lecl.) ‘lekhat’: *salvo, excepto*.

²⁹ Mujikak, ‘oguzi’: *pronunciar* dakar. Azkuek (1891) ‘oguzkera. Jaizkibelek, ‘oguziera’. Larramendik, ‘ogucita’, *nasbaguea*: *pronunciación*; ‘ogucitu’, ‘nasbagueu’: *pronunciar*.

³⁰ Azkuek (1891), *acento ortográfico*: ‘ezangarri’; *acento prosódico*: ‘sendagarri’. Jaizkibelek, ‘otsitu’: (D.T.) *Hacer causar alguna cosa aquel ruido que se percibe con los oídos*.

LARRAMENDI, M., 1853: *Diccionario Trilingüe Castellano, Bascuence y Latín*. Edición publicada por don Pío de Zuazua. San Sebastián.

VILLASANTE, L.: 1979: *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aránzazu.

MUGICA, P., 1981: *Diccionario Vasco-Castellano*. Mensajero. Bilbao.

ZABALA, E., 1978: *Euskal literaturaren historia laburra*. Lazkao. Testu mekanografiatua.